

IRRATI-UHINEN IZAERA



Elektroiek zirkuitu elektriko batean oszilatzen dutenean, beren energiaren parte bat erradiazio elektromagnetiko bihurtzen da.

Frekuentzia (oszilazioaren bizkortasuna)

Hagitz altua izan behar da aprobetxagarriak diren intentsitate-uhinak produzitu ahal izateko; uhin hauek espaziotik doaz, ariaren abiadura daramatelarik . Hauetako uhin batek antena metaliko bat topatzen duenean, bere energiaren parte bat metalaren elektroi askeetara iragaiten da eta mugimenduan ipintzen ditu, korrante honen frekuentzia uhinarena bera da. Hauxe da irratitik komunikatzeak duen printzipioa. Irrati-emisore batek frekuentzia jakin bateko erradiazioa elektromagnetiko kontzentratua sortzen du. Horrela sorturiko uhinak antena batek jasoak dira. Antena honekin kontaktuan sartzen diren guztietatik, hargailuak berarekin sintonizaturik daudenak baino ez ditu amplifikatzen .

Ahotsak eta musika irratitik erretransmititu ahal izateko, seinale "eroale" uniforme baten uhinak audio-seinale modulatuak izan behar dira.

Uhinaren modulazioa bi eratan egin daiteke: Anplitudean

(anplitude-modulazioa, AM) eta frekuentzian (frekuentzia-modulazioa, FM). Hargailua frekuentzia altuko uhin eroaleak ezbatzeko gauza da, jatorrizko soinuaren frekuentziako altuko uhin eroaleak ezabatzeko gauza da, jatorrizko soinuaren frekuentziazko uhin elektrikoek bakarrik jasoz.